

Dalaid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

Erositako prezioan

A

riketatxo bat: paper zuria hartu, eta bizpahiru minutuko tartean, honako galderari erantzun: Zergatik da onuragarria hizkuntza aniztasuna?

Pasa da idazteko tarte laburra. Zer moduz? Alde-aldeko argudioak isuri al zaizkio zure gogoari? Gustura gelditu al zara?

Egia esan, hizkuntza aniztasunaren aldeko jarrera duzulakoan egin dizut galdera, nahiz eta, jakina, bestela ere izan liteke. Baina hala baldin bada, eta zure jarrera aniztasunaren aldekoa baldin bada, gerta liteke arrazoi sendo eta sakonetan oinarritua egotea, edo gerta liteke sentimendu indartsu baina intuitibo samar baten inguruan eraikia izatea. Edo biak aldi berean gertatzea. Edo bietako batere ez, eta haizeak aisa eraman lezakeen ideia ahul bat besterik ez izatea.

Izan ere, maiz gertatzen zaigu ideia indartsu baten aldeko izatea, eta, haren defentsa egitea egokitzen zaigunean, nondik jo ez dakigula gelditzea. Erositako prezioan saltzen ditugu sarritan ideiak, eta modu akritiko eta azaleko samarrean jaso duguna era berean saltzen dugu. “Erosleak” zorrotz eta estu hartzen gaituenean, ordea, orduan komeriak.

Eta akatsa edo gabezia, agian, ez dago ideia horretan, guregan baizik; zehazkiago,



Maiz gertatzen zaigu ideia indartsu baten aldeko izatea, eta, haren defentsa egitea egokitzen zaigunean, nondik jo ez dakigula gelditzea



ideiak gure egiteko eta onartzeko hainbatean dugun erraztasun handiegian. Zerbait pentsatzeko edo zerbaitetan “sinesteko” dugun erraztasun handiegian.

Idea jakin bat ona iruditzen bazaigu, indartsua, bidezkoa eta garrantzitsua dela iruditzen bazaigu, uste dut merezi duela astindu pare bat ematea, aurretik, atzetik, barrutik eta kanpotik begiratzea, eta, horren ondoren ere ontzat, indartsutzat eta garrantzitsutzat jotzen badugu, horren alde egin eta aurrera jotzea.

Hizkuntza aniztasunari eustea egokia eta mesedegarria dela intuizio hutsez sentitzea, konparaziora, nahikoa izan liteke norberarentzat, eta akaso baita beharrezkoa ere, baina ingurukoak eta ez hain ingurukoak horren onuraz ohartarazi nahi baditugu, gure intuizioaz eta sentsazio onaz haragoko zer edo zer eskaini beharko dugu, haiengan ere gutxienezko funtsa izanen duten arrazoiak eta sentimenduak piztuko baditugu, eta ideia horrek behar duen ibilbidea egin eta gizartean indarra hartuko badu. Badugu horretarako behar adinako euskarria, nire ustez,

baina ez dugu pentsatu behar denontzat hain agerikoa eta biskotakoa denik. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Franco ondorengo Fragaren Alianza Popular haren seme-alabek Nafarroan dute hazientza, arbasoen herentzia. Gaztetan harantz egiten genuenean, bertako karlistekin izaten genituen eztabaida liskartsuenak, gu baino aiseago euskaraz ari ziren haiekin. Kosta egiten zitzaidan karlistak eta erreketek bereiztea PCren adarren artekoetakoak bezainbat. Berdin samarrak iruditzen bazitzaizkidan ere, beren artean sekulako herrak zizkioten elkarri, nahiz guri huskeriak irudi zituzten ezberdintasunak. Era berean, abertzaleen artean genituenak ez zituzten ulertzen, eta Nafarroa euskaldun-

UPN-PP

tzeko gure jukutria estrategikoei egozten zizkieten gure artekoak, helburu bereko antzerkilariak baikin. Ikastolak eta gau-eskolak sortzen hasi ziren garaia ziren. Geroztik urtaroz dezenteko joan da, bertako euskaldunek ez dute amore eman, euskararen eremuak zabalagoa nahi du. Lodosa Sartagudako ikastolak bizi nahi eta larri. Gipuzkoako Foru Aldundiak tokatzen zaiona egin eta laguntzeko erabakia hartu du. Bikain. Egingo nuke gipuzkoarrak hein handian ados eta harro gaudela. Merezi genuen dugun aldundia, luzaz behar dugun hori. Ez ditzatela beren besoak erortzen utzi. ■

